

NAZIOA ETA HIZKUNTZA

José Luis ALVAREZ EMPARANZA
«TXILLARDEGI»
Hizkuntzalaria, Euskal Herriko
Unibertsitateko irakaslea

Orain dela egun batzu (joan den Irailaren 28an, hain zuzen), gai honetaz hitz egin nuen Bilbon. Mahaikide izan behar nuen **Lluís Aracil** ez zen azkenean hara azaldu. Eta bakarrik gertatu nintzen mahai-inguru hartan.

Gaurko neure hitzaldian, beraz, gauza handirik aldatu beharrik ez. Baina harako prestatu nuena, elkarrizketa piztutzekotan erdaraz idatzia, hemen euskaraz egingo dut. Zenbait puntutan, agian, ñabardura hau edo hura erantsiz; baina funtsean gauza bera errepikatuz. Erdal testua dutenek, hortaz, honen muina ere badutela esan daiteke.

Orain arte, eta ia-ia salbuespenik gabe, edonon **hizkuntza edo nazio** arazoa gertatuz gero, desbideratu egiten da ezker «ofiziala» behin eta berriz; eta ezker hori areago izan ezker «ikasia» (sasi-ikasia edo esatea egokiago, nire ustez), adimenez edo teoriaren aldetik ikasia, alegia; eta hainbat eta nabarmenkiago desbideratzen.

Bestela esanda: herri bat bere nortasunean zanpatua dagoen lekuetan, ezker ofiziala nahasi egiten da, erratu egiten da; eta objektiboki (are subjektiboki ere, eta bero-beroan ez gutxitan), eskuinaren eta inperialismoaren alderdian jartzen da. Hitz batez, arrazoin orokor eta gorenak omen diren zioengatik, herri desberdinek oro beren burua gobernatzeko eta beren kultur-nortasuna zaintzeko eskubide zehatzak eta kendu-ezinak ukatzen.

Ezin garbikiago agertu da fenomeno hau Euskadin frankismoaren azkenean urteetan; alegia, euskal abertzaletasunaren mogimenduan zinez lehenengo aldiz ezker klasikoaren ideiak sartu zirenean.

Beste modu batez gauza bera esateko: ezker klasikoak euskal nazio-arazoari buruz mamitutako teorigintza (eta eskema orokorren ezarpena besterik ez da hori), «ahula» edo-ta «hutsunez betea ez-ezik —eta onginahi harrigarri horren kakoa konprenitzen ez dugularik— **argi-eta-garbi behin eta berriz alienatzailea da.**

Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen, eta are gutxiago ezkertarren artean, ekonomiaren izariak eta klase-egoerak Gizateriaren bilakabidean barrena izan duten baldintzapen-balio edo eragintza; batez ere Historia orokorki kontsideratzen bada. Are gehiago ere esango genuke: giza-multzo nazio-bakarrei eta hizkuntza-bakarrei buruz gagozkienean, eta gaurko munduan bereziki, faktore horietxek dira eragile eta baldintzaile nagusiak.

Mehatxatutako *hizkuntza* bat edo zapal dutako *nazio* bat dauden lekuetan, berriz, eta datxekien *herriak bere burua altxatzea* erabaki duenean, arazo horietxek izaten dira kondairaren eragile nagusiak; eta ez ekonomiaren sailekoak. Horra hor joan den mendeko Kondaira: atera daitekeen ondorio nagusia horixe da, eta ez besterik ezer. Euskal Herriaren Kondaira ere, beste hori bezain argia da; eta behin eta betirako honetaz jabetzera eramán behar luke ezker abertzalea. Nazio-arazo larria duen herrietan ezin nabarmenago baitago egia zer den, eta faltsua ere zer den.

Baliteke sexu-alorrean hartutako adibide hau bestearen argigarri izatea.

Sexu-arazoetan, garbi agertzen denez, ondorio nabarmenak dituzte faktore *ekonomikoek*. Gizaseme aberatsek, esate baterako, kotxe ederra atarian, kanoa dotorea kaian, edo-ta mendialdean etxetxo bakartia dutenean, aukera gehiago dute, dudarik gabe, sexu-arrakastak lortzeko, beren soina besterik eskain ezin dezaketenek baino (edo-ta, gehienez, eman dezagun, halako taberna triste batetan kafetxo ebaki bat eman dezaketen gizarajoek baino). Emakumeek ere, bide beretik, hobeki zain dezakete beren gorputza, eta beren emazteki-xarma egokiago baliarazi, dirua dutenean, dirurik ez dutenean baino. Askatasun handiagoak har ditzakete, era berean, dirudunak izanez gero; ongi baitakite, jakin, ilortzeko beharra gertatzekotan, Londres-era edo Ginebra-ra joatea badaukatela. Diru-ahalbide horiek ez izatekotan, berriz, gerta dakiekeen haurduntzaren beldurrez, kontuzago ibili behar sexu-arazoetan. Beste maila batetan orain: nekez pentsa daiteke dirudunak eta langileak aukera bera dutenik prostituzio dotore eta osasun-duna iristeko. Hitz batez, klase guztiek ez dute aukera bera inondik ere; eta, hain zuzen ere, ekonomi ezintasunak biziagotu egin ditzake arazo sexual horiek.

Sexuaren deia, halere, beste maila batekoa da. Gizarteetan klaseak agertu baino lehenagoko dei bat da, biologian funtsatua den dei bat da. Nolabait esateko, gizarte-aurrekoa da, edozein ekonomi-antolaketa baino lehenagokoa da; eta honi buruz dexente autonomoa.

Sexu-arazoa, beraz, «razionalizatu» nahirik, omen, materialismo historiko delakoaren arauera egingo diren saioak oro, porrot egitera eramango dute. Eta teoria hori hertsikiago hartu, beraz, eta handiago ere gertatuko da porrota. Eta sexutasunari loturik izan ohi diren sendimen-arazoak ere teori-bide horretatik azaldu nahi izatekotan, okerragoa ere gertatuko den desbideraketa.

Horrela jokatur gero, azterbide «ahulak» bakarrik ez, «hutsunez betetako» azterbideak bakarrik ez; baina, argi-eta-garbi, ideologi-tresna alienatzaile bat eraikiko litzateke.

Eta honetaraz gero, pasadizu pertsonal bakar bat kondatuko dizuet: ezker klasikoan mogitzen zen militante baten kasua. Oreretakoa zen, zehazkiago mintzatzekotan hura. Eta guztiz seriotan hau sinesten omen zuen: jeloskerian iturburua burges-jabegoan zetzala. Klaserik gabeko gizarte berrian, beraz, norberak bere ohean emaztea eta beronen amorantea elkarrekin topatzeak, beraz, ez omen luke haserrerik batere piztuko. Omen...

Jakina, txikiratutako gizonezkoen gizarte batetan, eman dezagun, edo sexu-erakarmenik gabeko munduan, edo-ta jelik gabeko sentonen artean, giro berezi horietan, sexu-arazorik gabeko gizaroetan, egoki gerta liteke teoria horren arauerako azterketa bat; eta ordura artean izkutuan utzitako alderdiak argiturik ere izan litezke. Hori garbi dago.

Horrelako zerbait gertatu bide da, ene ustez (eta oraindik ere gertatzen ari, nahiz askoz gutxiago) ezker abertzalearen pentsatzaileen artean. Hots, gure herriak sinesteko duen joera ezin azkarragoa ezaguturik, luzarorako ote dugun beldur naiz. Joera horrek, mende askotako elizkeriak azkarturik, frogatu ezin daitezkeen gauzak sinesten ohitu baikaitu; are gehiago ere: kontrako aztarnak begien aurrean ditugunean ere, sinesteari eusteko.

Badirudi, halere, abere ugartzuna dela gizona, jantzitako tximuaire bat, alegia; eta, hortaz, aberetasun horretatik datozkigun faktoreak, hortxe ditugula gudan, sendo, ezin indartsuago. Eta bizian barrena baldintzatzen eta mugatzen gaituztela, beraz, hertsiki mugatzen; eta hau gure klase-egoera zein den berdin, edo ia-ia berdin, delarik. Sexuaren dinamika, esan dugunez, horietako bat izan daiteke. Monismo itsuan kokaturik ezker ofizialak mila buelta eta jiribuelta emanagatik ere, biologi faktore horiek ezin daiteke azal klase-fenomenoen ondorio gisa.

Hots, badago, itxura denez, bigarren faktore horietako bat: biologian funtsatua, gizatasuna bera baino lehenagokoa, gudan bizi-bizirik irauten ari: guk hemen *leinu-deia* deituko duguna; gaurko munduan leialtasun *etniko edo nazional* gisa itxuraldatua.

Gizateria bera baino **zaharragoa** da leinu-dei hori; eta **norberaren eskualdea defenditzeko senean** agertzen da. Zergatik zaharragoa? Antropoideen artean ere badagoelako; eta baita gugandik urrutiago dauden abere-mota askotan ere.

Antropologiak erakasten digunez, are herririk atzeratuena eta arkaikoen artean ere, baita gizarte-egiturarik ximpleena dutenen artean ere, beti ere bi ezaugarri aldakaitz hauek agertzen dira:

1) beti ere denboren azken antzintasunean eta kondaira-dokumentuen atzean sorturik, norberaren giza-multzoaren **sorkuntza mitologikoa** onartzen da ahobatez. Beti ere halako gertakari miresgarri batek sortu zuen leinua; eta urrun hartan **zorionean eta tirabirarik gabe** bizi ziren arbasoak.

2) norberaren **giza-lurralde berezia** dago beti: kulturaren aldetik, bakuna; barruan gizarte antolaketa eta harremana dago. Kanpoan, berriz, lurralde arrotza eta etsaia hasten da, kulturaz desberdina. Eta bigarren honekin giza-harremanik eraikitzerik ez dago; etsaigoan, gorrotoan edo gerlan ez bada.

Beste puntu bat: gizamultzoaren arbasoak eta lurraldea **sakratuak** dira.

Horra hor sozio-biologiaren bidez dakiguna.

Hots, orain dela gutxitxo arte, bizi-bizirik zegoen leinu-leialtasun hori Euskal Herrian. Sendimendu hori orain dela gutxi ezabatu da.

Estatu-mailako muga berri horiek agertu arte, beren lurralde berezi horren mugak nontsu zeuden zehazki xamar zekiten euskaldunek: malato deritzen zuhaitzak zeuden mugaraino. Eta lurralde berezi hori ezin basakiago defenditzen zuten (oroit gaitezen Aymeric Picaud-en lekukotasunaz). Inbasoreak gupidarik gabe jazartzen zituzten muga horretaraino. Baina **haraino bakarrik**. Harispek berak, Napoleonen garaian, lanak izan zituen bere euskaldun «xazur» haiek Euskal Herritik ateratzeko. Etsaiaren **kanporaketa** egiten zen, beraz; edo-ta, nahi ez izatekotan, **garbiketa** ere bai. Baina «inperio-nahikunde»rik ez zegoen.

Bidenabar esateko, Estatu modernoak lurraldetasun berezko horri erantsi dio burokrazi kutsua; baina ukatu ez du egin, eta senezko joera hor dago, hortaz.

Europako herri askotan aurkitu da lurralde bereziaren ideia bera, lurralde mugatua eta sakratua batera; eta gauza bertsua gertatzen bide da mundo osoan.

Norberaren lurralde berezi horri lotutako *sendimendua*, beraz, *guztiz aspaldikoa* da; eta gizarte modernoagoetan sortu diren ekonomi-gatazketan hura azaltzerik ez dago.

Hori dela-ta, hauxe da lurralde bereziaren sen horren kontrako gertakari aurkaria, halako karrikatura ia-ia: atzeritar ostean *bortxazko okupazioa*. Eta, honen ondorioz, bertako ondasunak eta pertsona berak inbasorearen zerbitzutan jartzea, ebaspen osoan.

Biktimen sedikeran, ordea, *multzo-ondasun sakratu* gisa agertzen da lurraldea. Eta, beraz, giza-multzoen zanpaketa gorria eta guztizkoa, kolonialismo militarra eta genozidioa dira.

Okupatzailea, bestealde, okupatutako lurralde horren sakratutasunaz jabetua da; eta, hortaz, bertako sinbolo-gunean *deuseztatzera* jotzen du. Zanpatu nahi den herriaren punturik errespetatuenak erasotzen dira, beraz; kolonialismo guztien, eta geronen herriaren, kondairan ikusi denez. Erfespetatuak diren gune horietxek dira herren eta gorrotoen helburua.

Hots, gauza batez jabetu behar dugu: gizarte modernoetan ere, fenomenoa bera dugula funtsean. Sendimendu horren indarra, hitz batez, ez dagokio azalpideari, edo loturik datxezkion izariei. Indarra sustraiak sarturik dauzkan *biologi eta gizatasun-aurreko* mailan bilatu behar da. Jakina: ideologiek, aurrerazale zein atzerakoiek, sendimendu arkaiko horiek jazten eta disimulatzen dituzte hain batez puntuzko buruzagitzen nahiaren arauera. Baina helburu hori *axalez bakarrik* lortzen dute.

Ez da batere segurua, bestalde, lurraldearen defentsa horri beti ondasun material edo balio estrategikoei datxekeenik: lurralde horren aldeko borroka *ez da beti* egiten ekonomi-eragilek horretaturik. Nahiz-eta askotan, kapitalismo zabalkorren aldi batez ere, besteren okupazioa arrazoi ekonomi-koengatik gertatu izan bada ere.

Nazio arazoak, beraz, oinarri biologikoa du: arkaikoa, etsistentziala, senezkoa, adimena baino lehenagokoa, are gizatar-aurrekoa ere nahi bada. Eta, hain zuzen ere, maila horretakoa delako (oharkabe diren sendimenduak

oharrezkoak baino azkarragoak dira), *giza-multzoen gizarte-indar nagusi* bihurtzen da, baita gure gizarte modernoan ere. Ongi ageri da hau kultura bakunaren gainean eraiki diren Estatu nazio-bakarretan.

Naziozkoa, bereziki, ekonomiaren eta klase-arazoen mailan sortzen diren indarrak baino *aisa azkarragoa* da. Eta, jakina, askoz azkarragoa eman ohi diren azalpen «razional» guztiak baino.

Behin eta berriz agertzen da hau, eta ez besterik. *Egiazko iraultza sozialistak* ez dira inoiz berez jabetu, *nazio-askapen eta atzerritar aparato okupatzaileen kanporaketa prozesu* gisa abiatu ez badira: horra hor Yujoslabia, Txina, Viet-Nam; are Kuba eta Nikaragua ere. Edo Errusia bera 1917-an. Nazio-askapen eragile funtsezko hau egon ez den herrietan, nahiz iragarpen famatu batzuk besterik esan, sozialismo iraultzaileak sekulako problemak izan ditu abiarazketan; eta askotan abiatu ere gabe da goro oraindik.

Era berean, eta arazo larriak dituen komunitate batetan, aurrez aurre eta zakarki, klase eta nazio-leialtasunak aurkaritzan gertatzen direnean, abertzaletasuna nagusitzen da (edo-ta abertzalekeria: nazio-mailako leialtasuna, hitz batez).

Gogoan har dezagun, esate baterako, 1917-an klasetasun hutsaren aldetik emandako aginduen porrota: alemandar soldaduek, dakigunez, ez zuten beren burgesiaren kontra borroka egin; baizik eta errusiar langileen kontra. Nazio-Askapenerako Baterakuntza guztietan (eta pilo bat badago jadanik), gauza bera gertatu izan da.

«Herri nahasle»en aurkako borroketan ere, edo-ta «ordenu»aren berrantolaketaren kasuetan sortu izan diren «Elkargo Sindu» guztietan, oso fenomeno antzekoa gertatu izan da. Ezkertar indarrek, Frantziari gagozkiolarik, ez zuten sekula arjeliar gudarien alde jokatu; edo azkenean egin zuenean, arjeliar mogimendua garaitu ezina zela ulertu zutenean besterik ez zuten amore eman. Arjeliarrek, beraz, frantses *Frente klase-arteko eta anti-arjeliar* borobil baten kontra egin behar izan zuten borroka. Frente horretan mutur batetik besterako osagaiak zeuden: eskuindar gaullistengandik hasi, eta PCF-raino. Nor egon zen kanponan? Ezaguna da: ezker muturreko taldeska batzu, batetik; eta ezker ofizialetik at zeuden intelektual bakan batzu, Sartre edo Jeanson-en antzera.

Gaurko Euskal Herria ere, benetako *Frente bi* ditugu aurrean: *biak dira klase-artekoak eta anti-euskaldunak*: bai frantsesa, bai espainola. Bi Frenteok dira Arjeliaren askatasunaren kontrako hura bezain nabarmenak, eta bada garaia argi eta garbi esateko.

Ezker abertzalearen aldeko bateratasun famatu hori, behin eta berriz iragarria baina sekula ez mamitua, faltsu agertzen da; zeren-eta dudarik ez dago gaurko zanpaketak ezker abertzalea duela helburu.

Euskal arazoaren aurrean (eta, jakina, komillik gabe idatzi dugu «euskal arazoa», modan jarri bide den zozokeriaren aurka), ideologiaren eta klase-egoeraren mailako kontraesanak guztiz *bigarren mailakoak dira*: bai Euskal Herriaren barruan, bai Espainian eta Frantzian. *Nazio-sendimenduak sako-nago* agertzen zaizkigu.

Nahiz-eta ezker abertzalearen puntuzko batzuk, pentsamolde faltsu eta xaharkitutan kokaturik, ezin ukatuzko errealitatea ikusi nahi ez badute ere.

Leialtasunen hierarkia ikusirik, beraz, ondorioa gauza garbia da: nazio-arazoa jasatzen duten herri zapalduetan, indar nagusia hau da: *nazio-askapenari* dagokiona. Euskal Herrian ere, hortaz, berbera da helburu nagusia: *nazio-askapena eta atzerritar okupazioaren amaiera*. Gainerakoa *adjektiboa* da; *nazioaren* mailako leialtasuna sakonagoa, arkaikagoa eta sendoago baita beste guztiak baino.

Hots: *hizkuntza da nazio-lurralde horren muina*.

Zoritxarrez astirik ez dugu puntu hau zehazki azaltzeko; eta oso laburki baizik ez dugu argudiatuko.

Nazio-lurralde horren bakuntasunaren oinarria, gaurko munduan batez ere, *hizkuntza da*. Hizkuntz bakuntasunik gabe, nazio-lurralde berezirik ez dago. *Merkatu batasunik ez*, noski, eta hau ongi ikusi zuten 1789-ko burgesek. Baina *soziologi bakuntasunik* ere ez.

Leinu-deiaren funtsa lurralde propioa da, esan dugunez. Baina lurralde hori nekez sendi daiteke norberarentzat, barruan komunikatzeko ahalbiderik ez bada. Lurralde bereziaren muina, beraz, muina eta hezurra batera, mamia eta baldintza bera, *nazio-hizkuntza da*.

Hizkuntzak egiten du lurraldearen *gardentasuna*; eta lurraldearen mugak, hain zuzen, «malato» zuhaitzetan bezala, gardentasun soziologiko hori ezabatzen den puntuan daude: mintzatzea *ezinezko* bihurtzen den eskualdeetan hasten da *atzerria*; alegia, lurralde propioa ez den *besteen lurraldea*.

Txanpon berberaren bi aurpegiak dira, hortaz, *nazio-lurraldea eta hizkuntz-lurraldea*; Euskal Herria ere, bere izenean bertan izkutatu ezinezko moduan agertzen denez: Euskal Herria, euskararen lurraldea da; eta euskalduna, euskara-duna.

Hizkuntza, horretara, naziotasunaren elementu edo osagai erabateko eta erabakitzaile *bakarra* da. *Bakarra*, berriz diot. Eta ez «elementu inportante bat», oraindik ere entzun ohi denez. Gaurko munduan, eta gure kasuan, geografiak laguntzen ez duelarik, erlijioa muga egiazkoa ez delarik, eta abar, eta abar, *hizkuntza* da nazio-lurraldeari egiazkotasuna eman diezaiokeen *elementu bakarra*.

Otto Bauer-ek ongi zionez: «ez da posible naziorik izaterik nazio-hizkuntzarik gabe». Eta azkenean etorri ez den Serrano adiskideak egokiro idatzi du: «hizkuntza da nazioaren osagai determinatzailea».

Nazio arazoa, hitz batez, nazio-askapena burutu artean batez ere, *arazo soziolinguistikoa* da funtsean.

Euskal abertzaletasunak, beraz, ez du sentidurik, zernahi esanagatik ere, *hizkuntzaren arazoa mogimenduaren erdigunean* bertan ez badu jartzen. *Hizkuntz menpekotasuna* ereiten duenak, «independentzia» oihukatzeagatik ere, *politikazko menpekotasuna* ereiten du.

Gure herriaren dinamika nagusia, sinets dezagun behin eta betirako, ez dago sozial-inperialismoak seinalatzen duen lekuan; abertzaletasun euskaltzaleak seinalatzen duen lekuan baizik. Eguneroko gertakariak lekuko.